

“Azkena izango al da” zioten 1919an, mende bete geroago gerrak jarraitzen du

ZERUKO ARGIA SORTU ZELARIK 1919AN, I. MUNDU GERRA BIRRINTZAILETIK SENDATZEN HASI BERRIA ZEN PLANETA. ESPAINIAK GERRA HARTAN ZUZENEAN ESKURIK SARTU EZ ZUENEZ, HEGO EUSKAL HERRIKO ENPRESEK EUROPARA PRODUKTU GEHIAGO ESORTATZEKO ABAGUNEA BALIATU ZUTEN. ALDIZ, IPARRALDEKO FAMILIEK LARRUTIK PAGATU ZUTEN MUNDUKO POTENTZIA HANDIEK BEREN NAGUSITASUNA JOKATUZ EUROPAN ERAGIN ZUTEN HEKATONBEA. EHUN URTE GEROAGO, GERRAK DIRA MUNDUKO ERREALITATE KONPLEXUAREN DATU GARRANTZIZKOENETAKOAK.

TESTUA | PELLO ZUBIRIA KAMINO @pellozubiria

Oro har Europatik eta mundu aberatsetik aparte gertatzen dira gaur sarraski gehienak, nahiz eta tarteka zipriztinak helarazi gureganaino, herenegun New York eta Londresera, atzo Bartzelona eta Parisera, berrikitan Estrasburgora... Zertan aldatu da gerra mende honetan?

Bruno Cabanes frantsesak aurreten plazaratu du *Gerraren historia XIX mendetik gaur arte* liburua. Elkarlanean jarri dituzte zortzi herrialdeetako zientziar, soziologo, antropologo, politologo eta artearen aditu, aztertzen gatazka armatuen transformazioa bai fronteei –daudenean– eta bai atzegoardiari dagokienean, eta beren eraginak gizarte, kultura, ekonomia eta politikan baina baita ere ekologian, erlijioetan eta giza-soinetan.

Mende batean gerraren bilakaerak aldatu ditu gudariak, beren kodeak eta beren arazoak. Derrigorrezko soldadutzak aspaldi ekarri bazuen zibilen eta militarren arteko bereizketaren ia desagertzea, biak erabat nahasi ziren boluntario iraultzaile mota berriak azaldu zirenean. XIX. mende amaierako garapen industrialak eta teknikaren aurrerapenak gatazka armatuen suntsiketa ahalmena errotik itxuraldatu zuen.

Hamarkada batzuetan, pasatu gara infanteriaren eraso masiboak ikustetik bonba nuklearrera, eskualde jakinetara mugatutako liskarretatik mundu gerretara. Eta arras konplexuagoak dira gaur gudarien bezala zibilen aurpegiak, irudiak eta esperientziak. Aldaketa guztion mamiak laburbildu ditu obraren zuzendari Cabanes doktoreak liburuetan berezitatutako *La Viedesidées* webgunean. Elkarriketa horretatik eta *Mediapart* guneari eskainitakotik laburbildu dugu gerraren mende bateko bilakaeraren historia.

XIX. mendeko gerrek segitzen dute gutxi-asko Clausewitz teorikoak XVIII. ean zabalduetako ereduak: estatuen arteko gerrak, gehienetan lurralde gatazken inguruan. Herritar-gudariz osatutako armadek egiten diote elkarri borroka gudu zelaia

den espazio fisiko mugatua eta denboraldi mugatua, izan zitekeen egun bat edo gehiagokoak. Horra gerraren eredu klasikoa, XIX. mende osoan ikusi zena. Eredu hori krisian sartu zen 1914an lehertutako I. Mundu Gerran, batailen erabateko itxuraldaketarekin. Batetik, guduak pasatu ziren hilabeteetan luzatzera eta borrokan ari ziren gizonen egoera ere erabat aldatu zen, amaitu zen ordu batzuetan gogor borrokatu eta gudu-zelaitik erretiratzeko ziren garaia: orain lubakietan iltzaturik geratu behar zuten egun, aste eta hilabete luzeetan, lokatz eta izotzetan hiltzeko zorian. Arma berriak, izan gas, artilleriaren obus edo bala, zauri larriagoak eragiten zituzten, ikaragarriagoak, gorputzak desagerrarazterainokoak. Guduen heroikotasun klasikoak han amaitu ziren betiko.

Gerra eredu klasikoaren bigarren krisi handia II. Mundu Gerrarekin iritsi zen: 1945, lehen bonba atomikoaren leherketa. Jendeak masa handitan hiltzeko gaitasun harrigarria erakutsi



SOLDADU FRANTSESAK ERASOAN I. MUNDU GERRAKO GUDU BATEAN, PAS DE CALAIS DEPARTAMENDUAN.

eta gizadi osoa suntsitzea posible dela konstatatu zuen. Lehenbiziko aldiz gerra bateko gertakizun nagusia batailarik gabeko une gako batean gertatzen da. Eta hori gutxi balitz, urte berean hasten da zabaltzen gerra formatu berri bat, insurrekziozko gerra, gerrillen gerra.

Gerrillak eta insurrekzioak dira gaur egungo gerra formaturik hedatuena, eta justu horrek bihurtzen ditu hain ulergaitz. 1950 eta 1960ko hamarkadetan, Gerra Hotzaren amaiera arte, eredu klasikoek balio zuten fenomeno berriak ulertzeko. Baina gaur egungo gerrak eta beren biolentzien dinamikak konprentzeko gerraren historialariek gero eta gehiago jo beharra daukate antropologo eta etnologoengana.

Gatazka armatuak goxatu egin ote dira azken mende honetan? Ez, gerrak erradikaltzera jo du, zalantzarik gabe dio Cabanese. Zergatik? Hasteko, guda egiteko baldintzak errotik aldatu direlako. Gudariak aurre egin behar diete arma berriei, artilleria izugarri borti-


tzei, gasei... Soldaduen gorputzek arrisku gogorrak jasaten dituzte gaur XIX. mendean baino. Bigarren aldaketa handia, zibilen kontrako bortizkeriak: XX. mende hasieran zibilak ziren gerren biktimen %10-%20, II. Mundu Gerran %65, gaur egun %90 dira. Hirugarren aldaketa bortizkeria ideologikoetan datza, gerrak gero eta gehiago daude oinarrituta sustrai ideologikoak (etnia, arraza...) dituzten gorrotoetan, eta hau ere nahiko berria da.

Gainera, gero eta zailago bihurtu da bereiztea estatu barruko gerren eta kanpokoekin artean, horra brutalizazioaren eredu famatua. Mundu gerra bat luza daiteke, esaterako, ondorengo gerra zibiletan.

Aldi berean, egia da jendeek erakutsi dutela gerra eta bere krudelkeriak arautzeko nahikeria. Horrela eraiki ziren zenbait arautze XX. mendean, nazioarteko hitzarmenetan bilduak batzuk eta beste batzuk kode militarretan. Hala ere, Hagako, Genevako eta antzeko arauak –biktimei, zibilei, zau-

rituei edo presoei buruzkoek–, Mendebaldeko jendeentzako baizik ez dute balio izan.

Gaur egun egoera paradoxiko batean bizi gara. Soldaduak desagertzen joan dira espazio publikotik, gutxienez XX. mende erdi aldean ezagutzen genituen soldaduak, desfileak, erakusketa handiak, uniformeak, derrigorrezko soldadutza... Gaur operazio antiterroristetan agertzen direnean harritu egiten dira herritarrak. Baina, aldi berean, gizartea militarizatzen ari da. AEBetara baldin bazoaz, armadaren irudia denean ageri da. Gerraren bortizkeria etengabe daukagu presente telebista pantailatan, film, joko eta entretenimenduetan. Hainbestearaino saturatu gaituztenez, bortizkeria banalizatzera iritsi gara eta azkeneko herritarroi erreakzionatzeko ahalmena kendu digute. Eta are kezagarriagoa, atzerriko gerretan –izan Iraken edo Afganistanen– erabiltzeko ekoiztutako armak orain etxean hasi dira usatzen metropolietako poliziak.



I. MUNDO GERRAKO HEGAZKINA. I. MUNDO GERRAKO GUDUETAN AZALDU ZIREN LEHENBIZIKO HEGAZKINETAKO BAT, ARMADA FRANTSESAREN 'VOISIN' ABIOIA, BI MILITAR ETA AMETRAILADORA BAT ZERAMATZANA.

Droneen erabilera da azken aldiko berritasunik handiena, eta hainbat kezka eragiten ditu. Droneak gai dira askoren artean harrapakin zehatz bat identifikatu, sarritan programa informatikoen bidez, eta hiltzeko honek erantzuteko aukerarik eduki barik. Bestetik, aurkitzen ditugu jende normalak goizean jaiki eta lasai ederrean bulego batera doazenak beren lan ordu batzuetan hiltzera milaka kilometrotara dauden beste jende batzuk, eta hau ere berria da.

Honek guztiak bakearen eta gerraren artean bereiztea zailtzen du. Gerra hainbeste aldatu denez, gerra saihesteko prebentzio lana ere konplikatuagoa da. Etika aldetik, arris-

kua ere badago gerra hutsaltzeko, azkenean gerra deitzeko edozein gatazkari. Uneotan arazo handienetakoa da gerra hasteko edo amaitzeko errito guztiak desagertu direla. Antzina, gerran sartu aurretik deklarazio bat zegoen, parlamentuaren onarpena eta abar. Orain gerran sartzen gara kasik oharkabea, herritarren ordezkariak kontsultarik egin barik. Gerra hasterako, lehen herritarren mobilizazioa deitzen zen. Frantziak azken aldiz 1939an egin zuen mobilizazio deia, AEBek 1942an... ikusi bata bezala bestea geroztik zenbat gerratan sartu diren.

"Gerra amaitzea", berriz, gero eta gutxiago aipatzen dute



zuri begira



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com





GAURKO DRONE BAT ERASOAN. ESKIFAIRIK GABE GERRARAKO ERABILTZEN DIREN HEGAZKIN BERRIEN ARTEAN, 'MQ-9A REAPER' DA DRONE ERAGINKORRENETAKOA, MISILIK AURRERATUENAK JAURTITZEKO PRESTATUA.

historiagileek –Cabanesek dioenez– “gerratik irtetea” baizik. Hori hala da gerraren eta bakearen arteko porositateagatik, une batean bata dagoen ala bestea zehaztea oso zaila bihurtu delako. Herritarren artean izu berriak eragiten dituen terrorismoaren gaia ere hor dago: nola sailkatu hori, nola definitu, zein estatus eman erasotzen gaituenari, zein legeren arabera epaitu zaurituak edo preso hartuak? Gudarien desmobilizatzea ere arazoa da gaurko gerretan, estatuen arteko gerra klasikoetan hori prozesu ezaguna zen, baina gaurkoetan? Haurrak ere erabiltzen direnean gudueta, nola desmobilizatu behar dituzu haur soldaduak?

XXI. mendean, horra beste mutazio bat, potentzia handiek beren gerretarako gero eta gehiago mertzenarioak kontratatzeraz jo dute eta honekin historian berrehun urteko jauzia egin dugu atzera, gerra kontrata pribatu handien esku utziz antzinako errejimenaren tresna bat berreskuratu dugu.

Baina historia zirkularra izan ez arren espiralean garatu ohi denez... horra Mendebaldeko potentziak nola hasi diren berriro soldadutza unibertsala ezartzen. Emmanuel Macronek hori bertsio *light* batean egin duelako edo, gure inguruetan ez da protesta antimilitarista ozenik entzun. Helduko da hori ere. Ager-tuko diren bezala gerretako ahaztu aipa ezinak, desertoreak. ●

www.korrika.eus

Izan korrika laguntzailea

Klika KORRIKA! 12 euroren truke, garrantzitsuena lortuko duzu: AEKren euskaltegiei laguntzea. Horrez gain, pina eta txartelaren abantailak eskuratuko dituzu.

Klika
21. korrika
GURE GASTEIZA

LORTU TXARTELA AEKren euskaltegietan eta www.korrika.eus webgunean